17.zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2004ko azaroa 4-a osteguna

Editoriala

Epa!!!

Gu Mikel, Maite, Maddi eta Iñigo gara.Urte honetako A.B.E rik dibertigarriena egingo dugu. Munduko albisterik hoberenak jarri ditugu. (Bushena ezik). Ikusiko duzue ze ona den.

IRAKURRI!!!

EHIZA

Jende askok pentsatzen du ehiza gazteen kontuak direla. Euskal herriko herrietan, batez ere, ehiza asko egiten da. Ehiza kirola dela esaten dute azken finean. Behin baina gehiagotan entzuten da gazteek kontatzen dituzten ehiztari buruzko gora-beherak.

Ehiza ez da kaltegarria ingurumenarekiko, azken finean. animalia galarazi beharrean zenbat edo kopurua kontrolatzen laguntzen du. Ehiztariei asko inporta zaie animaliak galtzea.

Nekazaritzak adibidez kalte handiagoa egiten dio. Animaliek kumerik egin ezinean joan egin behar dute. Nekazariek zianuro haziak erabiltzen dituzte. Galeper batzuk makina batzuekin hiltzen dituzte.

Isilpeko ehiztariek kalte handiagoa egiten dute eta kontrola gero eta handiagoa izan behar da. Kirol hau gehiago ezagutzea komeni da. Txakur kumeak eta txakurrak ehizean.

Maite Nabaskues

Erredaktoreak

Maddi,Maite,Iñigo eta Mi-

aurkibidea

1.- AZALA: Ehiza
2.- GURE ESKOLA: 2. zikloan
3.- ALBISTEAK
4.- LUMAREN KILIMA: sentsazio zirraragarria
5.- GU ERE IDAZLE:
6.- ENTRETENIGARRIAK

Gure eskola

Mari Mar irakasle berria

Mari mar lehenengo zikloko laguntzaile berria da. Aurten etorri da eta ikastola honetan oso pozik dago.

Mari Mar

1– Zenbat urte daramatzazu irakasle lanetan?

-15 urte gutxi gora behera.

2-Zein eskolatan egiten zenuen lan Morlansera iritxi bain lehenago?

- Zamalbide institutoan(Errenterian).

3– Gustora al zaude eskola honetan?

-Bai, oso gustora.

4– Zein talderen tutorea zara?

- Ez daukat tutoritzarik.

5– Zer irakasten duzu orduan?

-Laguntzaile bezala nago.

6– Non bizi zara?

- Pasaian.

7– Seme-alabik ba al duzu?

- Ez, ez ditut.

8– Ezkonduta al zaude?

- Ez, ez nago ezkonduta.

elkarrizketa

albisteak

NAZIOARTEA

Bush eta Kerry-ren artean dauden hauteskundeak hasi ziren asteartean. Bush Washingtonera joan eta 4 ordu geroago, Kerry Bostonera joan zen, biak botoa ematera. Bushek

Leire Mitxelena

NAZIOARTEA

Undosko mendietan (Pirineos), Canelle hartza hil zuten. Canellek txakur bat zauritu zuen eta ehiztariak izuturik tiroka hil zuen.
Canelle, Camille-ren ama

Mateo Coloma

DONOSTIA

Asteartean, gizon batek, bomba abisu faltxoa eman zuen. Bomba, Sagrada Familaren elizaren ondoan zegoela esan zuen. Polizia, gezurra zela konturatu zenean, gizona atxilotu

Andrea Esparza

LUMAREN KILIMA

BAHITUTA

Akelarre baten erdian nengoen.Begirada guztiak niri zuzenduta zeuden.Konturatu nintzenerako, enbor bati lotuta nengoen. Momentu honetan, nagusiak esan zuen:

-A ze zortea! Oraintxe bertan herrira nindoan ume baten bila, gure sorginkeriak frogatzeko. Baina, ni atera aurretik,zu agertu zara,beraz,zurekin frogatuko ditugu. Hasi dadila festa!!!

Zuzen zetorren,ziztu bizian.Argiak jo ninduenean, lirain-liraina sentitu nintzen,soken estupenetik aska. Orduan,beste argi zazpi batek jo ninduen,eta txoria izatetik,gorila izatera pasatu nintzen. Ondoren, argi hori batek jo ninduen, eta sugea biurtu nintzen. Soketatik erabat aske nengoenean,argi urdin batek jo ninduen, katu bihurtuz. Katua nintzela aprobetxatuz, zuhaitzera igo nintzen. Baina, goian nengoenean, more koloreko argiak ukitu ninduen, hire benetako itxura emanez, baina aldaketa batekin, giza gorputzean hegoak nituen!

Eta momentu hartan, esnatzerakoan, lurrera botatzeko zorian nengoen.

ANE ARZELUS

Gu ere idazle

HIEROGLIFIKOAK





MADDI FLORES
IÑIGO ETXEBERRIA

Eguraldia

LAINOTUTA

Momentu honetako tenperatura:13°
Atzoko tenperaturarik beroena:27°
Gau honetako tenperaturarik hotzena:11°
Zerua:lainotuta
Lurra:lehorra
Haize mota:Barea
Euri mota:Ez du ari
Euri kantitatea:0 l m^2ko
Presioa:1020 mb
Prebisioa:Aldakorra eta arratsalderako

Esaera zaharra:Goiz gorri, arrats euri.

A.B.E Hitzak aurkitu, portadakoak ez du balio

entretenigarriak

HOME'S THING



IÑIGO